

“Lagun plana” sustapenaren oinarriak

EUSKALTEL SAK (aurrerantzean, EUSKALTEL) goiburuan aipatutako sustapena martxan jartzea erabaki du, planamigo.euskaltel.com webgunearen bidez (aurrerantzean, “sustapena”). Euskaltelen bezero aktibo izanik (aurrerantzean, bezero preskriptoreak) etxeko edo enpresako bezero berriei Euskaltel gomendatzen dieten bezeroentzat da sustapena.

Oinarri hauek ditu:

1 Parte hartzeko baldintzak

Sustapenean parte hartu ahal izateko, ondoren aipatzen diren baldintza guzti-guztiak bete beharko dituzte, bai bezero preskriptoreak eta bai bezero berriak, baita oinarri hauen ondorioz sortzen diren gainerako guztiak ere:

- Bezero preskriptoreak:
 - EUSKALTELen bezero izan behar du, EUSKALTELekin kontratatutak dituen zerbitzu guztiak ordainduta izan behar ditu (saria gozatzen amaitu arte, gutxienez), eta EUSKALTELekin sustapen-aldian eta sariak eskuratzeko aldian kontratatutako produktu edo zerbitzurik ez du izan behar etenda.
 - Sustapenak irauten duen bitartean EUSKALTELekin kontratatutak dituen zerbitzuak mantendu behar ditu.
 - Lagunak gonbidatu behar ditu, planamigo.euskaltel.com orriaren bidez, EUSKALTELekin telekomunikazio-zerbitzuak emateko kontratua sina dezaten, eta lagunek kontratua egin behar dute.
 - Gutxienez linea finkoko edo Interneteko produktu bat eduki behar du kontratatua.
- Bezero berriak:
 - Sustapen honekin bateragarriak diren produktuetakoren bat kontratatu behar du telefonoz, bezero preskriptoreak gomendatuta.
 - Kontrataturako produktuaren titulartasuna mantendu behar du eta zerbitzuan eta ordainketari dagokionez egunean egon, gutxienez 12 hilabete oso eta jarraian, zerbitzua ematen denetik hasita, finkoaren kasuan. Hori betetzen ez bada, zerbitzuaren kontratuan azaldutako penalizazioa aplikatuko da.

2 Sustapenaren onurak

2. puntuaz azaldutako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen ondoren, bezero preskriptoreak 50 €-ko deskontua izango du, BEZa barne (10 €-ko deskontua fakturan, 5 fakturatan), sustapen honen bidez Euskaltelarekin kontratu bat sinatzen duen lagun bakoitzeko.

Deskontua hileko kuotetan eta kontsumoetan aplikatuko da; ez dira sartzen terminalen epeko ordainketen kuotak, Netflixen kuotak eta pantaila-asegurua eta mugikor-asegurua kuotak.

Aldi berean Lagun Planeko 5 deskontu ere eduki daitezke, baldin eta bezero preskriptoreak 5 lagun Euskaltelen bezero bihurtzea lortzen bada: faktura batean gehienez ere 50 €-ko deskontua lor daiteke.

Lagun Planeko deskontuak aplikatu ondoren, bezeroak ordaindu beharreko fakturaren gutxieneko zenbatekoa 0 €-an gera daiteke, baina inoiz ez balio negatiboetan. Adibidez, bezeroak 35 €-ko kuota- eta kontsumo-faktura badu eta Lagun Planeko 4 deskontu aktibo baditu, azken faktura 0 €-koa izango da, eta ez -5 €-koa.

10 €-ko deskontua zerbitzua aktibatzen den fakturan aplikatuko da oso-osorik, hainbanaketarik egin gabe.

Lagunak baja ematen badu deskontuak irauten duen 5 hilabeteak igaro aurretik, desaktibatu egongo zaio deskontua bezero preskriptoreari.

3 Sustapen honetan deskribatutako deskontuak bateragarriak dira bezero preskriptorearentzako ongi-etorri-sustapenekin edo bezeroak atxikitzeke beste sustapen batzuekin. Saria aktibatzea

Bezero berriak EUSKALTELekin kontratatutako telefonia finkoko edo mugikorreko telekomunikazio-zerbitzua aktibatzen duenean, automatikoki jasoko du bezero preskriptoreak sustapenari lotutako saria.

4 Ohar orokorrak

Sustapen honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea; beraz, onartzen ez badira edo haietan ezarritakoaren kontrakoa egiten bada, parte-hartzailea sustapenetik kanpo geratuko da, eta, ondorioz, EUSKALTELek ez du bete beharko sustapen honen ondorioz parte-hartzaile horrekin hartutako ezein betebeharrak.

EUSKALTELek eskubidea du edozein unetan aldatzeko sustapen honen baldintzak, bai eta bertan behera uzteko ere, edozein unetan eta aldeztu aurretik jakinarazi gabe. Bezeroei horren berri emateko, aski izango du Euskaltelen web orrian ohar bat jartzea.

Bezero preskriptoreak ez du eskubiderik izango sari honen ordeztu beste bat eskatzeko, ez EUSKALTELen beste produktu edo zerbitzu bat, ez eta dirua ere.

Sustapen hau bere oinarriek arautuko dute. Oinarriak interpretazioari buruz auziren bat sortuko balitz, bai EUSKALTELek eta bai sustapen honetako parte-hartzaileek berariaz onartzen dute Bilboko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren eta eskumenaren mende jartzea, eta berariaz uko egiten diote legokiekeen beste edozein foruri.

5 Informazioaren erantzukizuna

Bezero preskriptoreak ziurtatzen du emandako datuak egiazkoak direla eta Bezero Berriaren baimena lortu duela eskatzen zaizkion datu pertsonalak emateko, eta konpromisoa hartzen du Euskaltel kaltegabe uzteko gertaera horiengatik eska lekizkiokeen erantzukizunetatik.